



Ene ametsean dakusat emakume eder bat
 eri, artetan hariak dauzkana, ehuntzan dagoena
 Penelope bat bait litzan
 gauzez ehun duena
 desehuntzen biharamonean,
 eta amets dagi Ulysses dela
 zazpi itsasoetan barna beti johan
 etxe-minez beti lthacarat, nor ez!, itzuli nahiean,
 Ulyssesek ar eta eme nahi luke izan
 izan eta ez izan, jainkoa, dena
 eta oroit da japoniar agure zahar batetaz
 itsas-hegi.barean jarria
 margo edet bat pintatzen/ez pintatzen
 eta berak margo hartako zamari xuri-gaztaina
 belagian eder, ederrago gizakiaren desiran
 amesten du oroitzapenean,
 eta bake hori, haizegoa,
 dekan du Ulyssesek idoro
 itsasoan, margo hortan eta gizaki eta herrien arteko
 haurridegoaren enparantzan ezik,
 bitartean, asekaitez, laminen saretan nahi du eman,
 bainan beharriak ditu estaltzen haiek kantan direnean,

Grezian hasi eta lurralde urrun eta gertuak ditu korritu
 eta gizakiaren auhena sakonegi zaio itsasi
 biziaren lillurak derabila aisezi,
 niketz, ez dakit/ba dakit gehiago Penelope naizen
 Ulysses, japoniarra, zamaria,
 ala naizen/ez naizen auhena, oinaze bera,

eta berriz ere itsas-hegi bare batean
 Lapurdiko ilunabar gozoan
 emakume eder hura dakusat
 bizitzaren ehuna, pozez eta minez,
 ametsez eta oroitzapenez egiten/ez egiten,
 eta ez dut deusik espero, dena dut iguriki
 min garratza dut, uros naiz
 kafe bat dut hartzen itsasoaren parean
 ilunabarrez, bakardadearen amets horren hegian.

José Angel Irigaray

poetas vascos

Veo en mi sueño una hermosa mujer / hilos entre los dedos, que está tejiendo / como Penélope / lo que teje de noche, lo desteje de día / y sueña que es Ulises / siempre navegando a través de siete mares / con nostalgia del hogar, siempre queriendo volver —¿quién no?— a Itaca / Ulises quiere ser macho y hembra / ser y no ser, dios, todo / y se acuerda de un anciano japonés / sentado en un apacible borde de mar / pintando-no pintando un hermoso cuadro / y él recuerda al esbelto alazán de manchas blancas —hermoso en el prado, mas en el deseo humano— de aquel cuadro / y esa paz, esa serenidad / raramente las siente Ulises / si no es en el mar, en aquel cuadro y en la plaza de la hermandad de gentes y pueblos / mientras tanto, lleno de insatisfacción, quiere ser atrapado en las redes de las sirenas / pero se tapa los oídos cuando cantas aquellas / Comenzando en Grecia ha recorrido territorios lejanos / y el lamento humano se le ha adherido demasiado / la vida le fascina fácilmente / en cuanto a mí, no sé-sí sé si soy Penélope, Ulises, japonés, alazán / o si soy-no soy el lamento, el dolor mismo / Y de nuevo al borde de un mar tranquilo / en el atardecer amable de Lapurdi / veo aquella hermosa mujer / tejiendo-destejiendo el hilo de la vida —dolor y alegría— con sueños y recuerdos / y no anhelo nada, todo espero / me duele amargamente, soy feliz / tomo un café al borde del mar / al atardecer, en el costado de soledad de ese sueño.